

Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea
Euskaltzainak
Legebiltzarreko kideak
Koldo Mitxelena-ren familiakoak
Eusko Legebiltzarreko langileak eta Zarauztik ekitaldi
honetara hurbildu zareten gazteak
Egun on guztioi!

DEBILE PRINCIPIUM MELIOR FORTUNA SEQUATUR
HASIERA XUME HONEK DUELA FORTUNA HOBEA

Esaldi horrekin amaitu zuen Bernat Etxeparek 1545. urtean argitaraturiko *Linguae Vasconum Primitiae*, Euskaldunen Hizkuntzaren Hasikinak goiburuarekin ere ezagutzen den liburua. Euskaraz ezagutzen den lehenbizikoa ere badena... Liburua desio batekin, bai eta dei batekin ere amaitu zuen: gure hizkuntza ez dezagun galdu, ez dezagun bazterrean laga, beharrezko eta beharrian horiek asebetetzeko gai bilaka dezagun; euskarak iraun dezan, gara dadin munduko gainerako hizkuntzen eta kulturen plazan! Euskaldunok hiztun gutxi dituen hiztun-elkartea izanik ere baitugu gainerako hiztun-elkarteen adina eskubide munduan harrokeriarik gabe harrotasunez agertzeko, bai eta bizitzeko ere. Gutxi gara, herri txiki bat gara. Ez gara inor baino gehiago... ez eta inor baino gutxiago ere!

Lehenbiziko liburu hartatik mendeak igaro dira eta zailtasun eta ezintasun ugariri egin behar izan die aurre gure hizkuntzak iraungo bazuen... eta mende batzuk geroago hemen gaude, bizi gara eta etorkizuna irabazi nahi dugu gure hizkuntzarentzat. Horixe da gure aldarria... nahia, gure arnasa luzeko kemenaren atzealdean dagoen giltzarria. Borondate horrek bultzatu ditu Euskaltzaindia eta Eusko Legebiltzarra lankidetzan jardutera, euskara geroz eta presenteago, duinago ager dadin gure kale bazterretan, munduko txoko guztietan... Etxeparek adierazitako "Euskara jalgi hadi plazara" mundu guztira eramanez, hizkuntza desberdinak bidelagun ditugula.

Bizi gara gure aurrekoek, bitarteko urriekin, ezin ulertuzko jarrerak gainditu ondoren, honaino ekarri gaituztelako. Indarberriturik gatoz etxean, eskolan, euskaltegietan euskara jaso edo ikasi dutenei esker, haiei... gazteei, idazleei, kazetariei, irakasleei, sortzaileei, langileei, herri-erakundeei, hots, guztiei zor diegu honaino etorri izana. Ahalegin kolektibo baten emaitza baita euskararen loraldia... eta guztiei ahalegin kolektibo horri segida ematera deitu nahi die Euskaltzaindiak, gaur, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Bizi gara bai, besteak beste, Azkue, Campion, Knörr, Satrustegi, Villasante, Lekuona, Eguzkitza, Txilardegi, Haritxelar, Aresti, Gandiaga eta hainbaten ekinari esker... eta pasa den mendeko hirurogeiko hamarkadan Euskararen Batasuna adostasunez bururaino eramateko gauza izan zirenei esker, horien artean, Koldo Mitxelena.

Azken hau jaio zela mende bat betetzen da aurten... eta azken honen hitzekin amaitzen joan nahi nuke nire mintzaldia: <<Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo, bizi garen oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde zaurretik... Hizkuntza ez da hor goian bi hegalez airean dabilen izpiritu mehea... baizik eta hemen behean, gizatalde batean, oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat: gizartean bizi da, hiztunengan; hiztunak ditu jasaile, hiztunek bizi dute. (...)>>... Eta nik gehitzen dut, guztion esku dago bai, Bernat Etxeparek duela hainbat mende esandako hura eguneroko bizitzan errealitate bihurtzea. Euskara dantzan, plazan eta munduan are presenteago bilakaraztea, hain zuzen.

Eskerrik asko!

Andres Urrutia, euskaltzainburua
2015eko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean